



ZIZUR NAGUSIA
KULTUR PROGRAMA
MAIATZA / EKAINA / 2021



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor



KULTURA, Zizur Nagusia
CULTURA, Zizur Mayor

Jarrai iezaguzu ZizurArten:
www.zizurmayorcultura.es/eu



EGUTEGIA



MUSIKA



ANTZERKIA



HAUR
ANTZERKIA



HAUR
ZINEMA



DANTZA



ZINEMA

MAIATZA

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

EGUNA

- 08 **MUSIKA** "Clásicos del jazz, swing & blues" ZUGARDI BIG BAND
- 14 **ANTZERKIA** "Remigia Echarren, la Reina del Arga" ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN
- 16 **HAUR ANTZERKIA** "L@s niñ@s del Winnipeg" LA LLAVE MAESTRA
- 22 **ANTZERKIA** "Beautiful Stranger" LA CAJA FLOTANTE
- 23 **HAUR ZINEMA** "Mina y el mundo de los sueños"
- 29 **ANTZERKIA** "Un embrollo divino" DORRE ELORTZIBARKO ANTZERKI TAILERRA

EKAINA

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

EGUNA

- 05 **MUSIKA** "Piratas" IRUÑEKO SINFONIETTA
- 11 **DANTZA** "Mi propio universo" ATENA FUNDAZIOA
- 12 **ZINEMA** "El décimo" ZINEZIZUR
- 16 **HAUR ANTZERKIA** "Amaren intxaurrak" PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS
- 18 **ANTZERKIA** "Stand *ieup* komedy" ALAZNE ETXEBERRIA, JOSE CRUZ GURRUTXAGA, MIKEL BERMEJO



**AHAL DUZUN BAKOITZEAN,
EROSI ZURE SARRERAK
INTERNET BIDEZ**



**ESKATU AURIKULARRA
EDO BEGIZTA MAGNETIKOA
ATEZAINDEGIAN**

Antolatzailea:



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor



EUZKARA Zuzeneko Udala
Euzkara Zuzeneko Udala

Diru-laguntzaileak:

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



RED DE TEATROS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

12€

MUSIKA
BONUAZUGARDI
BIG BAND
2021/05/08IRUÑEKO
SINFONIETTA
2021/06/05

10€

ANTZERKI
BONUAESTEFANÍA DE PAZ ASÍN
"Remigia Echarren,
la Reina del Arga"
2021/05/14LA CAJA FLOTANTE
"Beautiful Stranger"
2021/05/22

PREZIOAK MURRIZTU DITUGU!

GAZTE ETA IKASLE TXARTELA (12 urtetik 30 urte bitartekoentzat): 4 euroko edo 4 eurotik gorako sarreretan %50eko murrizketa. Ez da aplikatuko haurrentzako ikuskizunetan.


Betebeharrak: NANA eta txartela eguneraturik aurkeztea.

LANGABETUAK: Doako sarrera bat haurrentzako zinema emanaldietara haurra laguntzera joaten den helduarentzat.

Betebeharrak: NANA eta enplegua eskatzeko txartel eguneratua aurkeztea.

SALMENTA
AURRERATUA

Apirilaren 23tik aurrera, ostirala, 9:00etan.

1. TXARTELDEGIA
 - Astelehenetik ostiralera 09:00 - 21:00
 - Larunbatetan 10:00 - 14:00
17:00 - 21:00
 - Igande eta jaiegunetan 12:00 - 14:00
 - Ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago.
2. INTERNET 

www.zizurmayorcultura.es/eu
Egiaztatu zure erosketa eta ez ahaztu sarrera.
Gogoan izan: kosturik gabe
3. INFOLOCAL 948 012 012
Astelehenetik ostiralera 08:00 - 18:00

OINARRIZKO
ARAUAK

Puntueltasuna: Behin ikuskizuna hasita, inork ez du sartzerik izanen aretoan.

Seinale akustikoak: Deskonektatu beharko dira.

Grabazioak eta argazkiak: Debekatuak daude.

Janaria eta edaria: Debekatuak daude.

Dirua itzultzea: Ikuskizuna bertan behera uzten denean baizik ez.

Haur ikuskizunak: Adin gomendatura doitzea gomendatzen da.

- 3 urtetik behekoek: Ikuskizuna adin horretarako denean baizik ez dute bertaratzerik izanen.
- 3tik 7 urtera: heldu batek lagunduta joan beharko dute.

Larunbata

8



MUSIKA

Clásicos del jazz, swing & blues

ZUGARDI BIG BAND

20:00
8€



Taldea Zizur Nagusian 2018an sortu zenetik, egungo jazzaren erreferentzietako bat da Nafarroan. Instrumentu talde handia da, hogeita hamar musikari nafar baitira kide. Instrumentuetan, badira metalezko eta zurezko haize tresnak, bada pianoa, bai eta ahotsa eta perkusioa ere. Jazzaren printza klasikoak zabaldu

nahi ditu; 1930etik 1970era bitartekoak, nagusiki, eta halaber, filmetako soinu-bandak eta 30eko eta 40ko hamarkadetako ahots-jazzaren estandarrak. Musika Eskolekin aritzen da lankidetzan, 14 urtetik gorako ikasleen artean big band moldeko errepertorioaren interpretazioa bultzatzeko.

Ostirala

14



ANTZERKIA

Remigia Echarren, la Reina del Argá

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN

20:00
6€
45 min

Familiarekin
gozatzeko
ikuskizuna



Iruñeko karrika batek Remigia Echarren du izena. Iruindar hura oso ezaguna izan zen XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran, eta jendeak Argako Erregina esaten zion. Estefanía de Paz Asinek funanbulista haren bizitza sinestezina kontatuko du agertokian, Remigia hil zenetik ehun urte joan diren honetan. Nondik sortu ote zitzaion altueretan zehar oinez ibiltzeko desio hura, noiz eta Iruñea hartan? Ikuskizunean hainbat arlo uztarturik ikusiko ditugu, hala nola narrazioa, interpretazioa, objektu-antzerkia, ilusionismoa, arte plastikoak, zirkua, eta musika nahiz soinua, muntaketa honetarako berariaz onduak. Hori guztia, emakume liluragarri hori hobeki ezagutzeko.

Igandea

16



HAUR ANTZERKIA
Gaztelaniaz

L@s niñ@s del Winnipeg

LA LLAVE MAESTRA

18:00

4€

50 min

Adin gomendatua:

8 urtetik gora



Winnipeg da 1938an Txilera 2.500 errepublikano baino gehiago eraman zituen itsasontziaren izena, guztiak ere Espainiako Gerra Zibiletik bizirik ateratakoak. Balentria hura Pablo Neruda olerkari txiletarraren ahaleginari esker lortu zen.

Antzezlanak itsasontzi hartan joandako haurrak omendu nahi ditu. Hain zuzen, haietariko lau haurren bidez iritsiko zaizkigu neskato-mutikoen istorioak. Horrela, Mario bere penez mintzatuko zaigu; Angelines egoera ulertzeko ahaleginetan dabil; Montsek aitarekin berriro biltzeko eskaera eginen die izarrei, eta Juani beldurra ematen dio itsasontzian ibiltzeak. Horra lau istorio, lau erretratu, eta xalotasunaz mintzo zaizkigu

Txileko eta Espainiako historiak uztartu zituen funtsezko une hartan. Gertakari historiko hura erarik tristeenean hasten da, baina bukaera elkartasunezko lezio handia da beharrea daudenenganako. Bidegabekeria eta krudeltasuna agerian, baina poesiaren bidez bukatuko dena. Antzezlanak zuzeneko musika dakar, eta aktore narratzaileak objektuak eta panpinak erabiltzen ditu ikusle gazteen irudimena akuilatzeke asmoz. Ikerlan historiko batean oinarritua dago lana, bai eta Winnipeg itsasontzian joandako batzuekin izaniko solasaldietan ere. Haur ikuspuntu batetik planteatua dago, hau da, haurrek gerra, ihesaldia eta erbestea bezain gertakari gogorak ikusi eta bizitzeko duten ikuspegitik.

Larunbata

22



ANTZERKIA

Beautiful Stranger

LA CAJA FLOTANTE

20:00

8€

80 min



2019ko maiatzaren 21ean, Ion Iraizozek jai/performance baten bidez ospatu zuen berrogei urte bete izana. Aitak egunkari bat irakurri zuen, ordura arte ezkutuan egondakoa, amak haurdunaldian idatzitakoa. Benetakako gertakari horretan oinarriturik, aktoreak bere oroitzapenen bidez kontatuko digu zer gertatu zen jai hartan. "Beautiful Stranger" lan autofikzionala da, eta irudimenak oroimena etengabe nola inbaditzen duen aztertzen du. Halaber, pertsona baten bizitzan diren identitate ugariez mintzo zaigu. Lanean, badira bakarriketak guztiakin eta solasaldia bere buruarekin. Bada vaudeville eta zinema, bada magia eta errealitatea. Badira amets

ezinezkoak eta emaitza iragarrezinak. Izan garen beste horren bilaketa dago edota izan gintezkeen huraxe. Geure burua ikusten dugu errepikaturik ispiluan, "selfietan", iraganeko eta etorkizuneko bideoetan, aurrean dugun publikoaren erretinan. Geure burua gutxi-asko garbi ikusten dugu islaturik. Arraroak, ederrak, miresgarriak, bitxiak... gara, ezberdinak aldi bakoitzean, baina beti berberak. Uste dugu badakigula zer nahi dugun, baina beste batzuk iritsi eta zalantza eragiten digute, hainbestearaino, non ez baitakigu gu geu ote garen edota besteek gu izatea nahi dugun huraxe. Guztiok gara guztiok eta inor ez da bat bakarrik.

MAIATZA

Igandea


23



HAUR ZINEMA
Gaztelaniaz

“Mina y el mundo de los sueños”

18:00
3€
81 min



Minnaren bitzta goitik behera aldatuko da, aitaren neska-lagun berria (Helena) eta neska-lagunaren alaba (Jenny) etxera bizitzera joaten zaizkionean, ez baita Jennyrekin ongi moldatzen. Minnak jakinen du eraikitzaile batzuk arduratzen direla

ametsak sortzeaz eta, orduan, Jennyren ametsak manipulatu ditu: ondorioak izugarriak izanen dira. Minnak, atsekabeturik, aurre egin beharko die hark berak sortutako ametsei, bere familia berria eta Jenny salbatuko baditu.

Larunbata

29



ANTZERKIA

Un embrollo divino

DORRE ELORTZIBARKO ANTZERKI TAILERRA

20:00
4€
75 min



Ez da erraza onartzea okertu egin garela. Are gutxiago, ondorioak geure gain hartzea. Baina hori berezkoa du gizakiak bere bizitzan: hau da, oker egitea, ondorioei aurre egitea

eta... berriz ere hutsegitea. Dena dela... asunitua ote dugu okerra Jainkoarena izan daitekeela? Burutik pasatzen al zaigu aukera hori ere izan daitekeenik?

Larunbata

5



MUSIKA

Piratas

IRUÑEKO SINFONIETTA

18:00
8€
65 min

Familiarekin
gozatzeko
ikuskizuna



Piratak gaizki bizi dira, urkamendiaren arriskupean beti, eta atzemandako ondasunak banatzean, dena xahutzen dute ronean, jokoan, etab. Eta berriz ere itsasora, soinean daramaten atorra dutela ondasun bakar! Beharbada, piraten bizitza ez da bizitzarik onena, baina dibertigarriena bai, ziur.

Iruñeko Sinfonietta taldeko piratek beren instrumentuak afinatuko dituzte, eta "Mundillo" kapitainak, berriz bereak. Musika, antzerkia eta umorea. Atzeko haizeak bultzaturik, belak zabal-zabalik.

Ausartuko ote zara antzerki eta musika moldeko abentura honetan itsasoratzeraz? Igo aingurak! Jaitsei belak! Itsasontzi pirata itsasoratzeke zorian baitago!



Ostirala

11



DANTZA

Mi propio universo

ATENA FUNDAZIOA

20:00

6€

60 min



Nire begiak eskaintzen dizkizut errealitatea ikus dezazun. Itxi zureak. Ezberdin ikusten al duzu errealitatea? Beste begi batzuekin begiratzeak beste pertsona baten errealitatea sentitzeko aukera ematen digu, geurea galdu gabe.

Dibertsitate funtzional intelektualak duten eta ez duten artistek emana da ikuskizuna. Haien bizipen pertsonalek eta haien gorputz mugimendu bakarrak elikatu dute sormenezko prozesu hau eta eman diote ahotsa beren unibertsoari.

Lan honek errealitateari 180 graduko biraketa ematea proposatzen du, haien errealitatea geure errealitatetik beretik sentitu ahal izateko. Azken buruan, denok bat gara.

Larunbata

12



ZINEMA

“El décimo”

20:00

2€

28 min

Antolatzailea:

ZineZizur



Paulino eta Cristal banandu dira, baina ez bati, ez besteari, bizitza ez dihoakie ongi.

Kasualitateak bien bidea gurutzatuko du eta haien

inguruan dena aldatuko da.

Umorezko gogoeta egungo gizartearen zati bati buruz, gero eta jende gehiagok duen jarrerari buruz.

EKAINA

Asteazkena

16



HAUR ANTZERKIA

Euskaraz



Amaren intxaurrak

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

18:00

8€

70 min

Erreniega

pista estalian



Pirritx eta Porrotx Marimototsekin elkartu dira parke magikoan. 3 urte dira Amatxo Loreto hil zenetik eta, egun hartan, intxaurrondo bat landatu zuten azken agurra emateko. Gaur, lehen intxaurrak janen dituzte eta, bitartean, Loretoekin bizi izandako abenturak kontatuko dizkigute. Lutoa pasatu dute eta pailazoak

pozik daude. Izan ere, hartaz oroitzen diren bakoitzean, intxaur zaporeko irribarre bat marratzen da beren ezpainenetan. Marimototsek gordeak dauzka parkeko landare eta lore magiko guztietako haziak, guztiak ere amak emanikoak. Gaur, egun aproposa da hazi horiek ereiteko. Mundu berri bat sortuko dugu!

Ostirala

18



ANTZERKIA

Euskaraz




Stand "ieup" komedy

ALAZNE ETXEBERRIA, JOSÉ CRUZ GURRUTXAGA, MIKEL BERMEJO

20:00

8€

80 min



Proposamen berria, euskaraz, "stand up comedy" deritzoten hori, ongi baino hobeki trebatu diren hiru bakarlari hauekin, beti barre eragiteko prest daudenak.

Alaznek mota guztietako teknologiak eta estrategiak erabiltzen ditu mutil-lagunaren bila joateko. Baina oraindik ez du formula sekreturik aurkitu bikote egonkorra aurkitzeko.

Jose Cruz artista errebeldea, bihurria da, beti sistemaren aurka dagoena. Publizitatean ere sakonduko du, aitaren betebeharrekin ekin baino lehen, hori bai lan fina hori!

Mikel aspaldi dabil bueltaka, leku batetik bestera bere tokia aurkitu nahian. Gazte xamar izan arren, aspaldi etxetik urrun bizi izan da eta bizitza horretan aurkitu dituen arazoak eta bizilagun zailei buruzko informazio zehatza eskainiko digu.